

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/047

Izenburua: NEKAZARITZA ERABERRITZEKO ETA GARATZEKO INSTITUTUKO
PROBINTZIA BURUZAGITZA

Datak: 1939 - 2008

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 385 instalazio unitate

Sortzailea: NEKAZARITZA ERABERRITZEKO ETA GARATZEKO INSTITUTUKO
PROBINTZIA BURUZAGITZA

Erakundearen historia:

Nekazaritza Eraberritu eta Garatzeko Institutua (IRYDA) uztailaren 21eko 35/1971 Legearen bidez sortu zen. Bertan, Kolonizazio eta Landa Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak, Kolonizazio Institutu Nazionalak eta Lurzati Berrantolamenduko eta Landa Antolamenduko Zerbitzu Nazionalak ordura arte izan zituzten eskumen guztiak bateratuta zeuden, horri esker nekazaritzarako kolonizazioari bultzada berri bat emateko. Haren egitura organikoa abenduaren 23ko 3220/1971 Dekretuaren bidez onartu zen, eta probintzia buruzagitzen eskumenak 1977ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez finkatu ziren.

Kolonizazio Institutu Nazionala, 1939ko urriaren 18ko Dekretuaren bidez sortua, Bardeako kanalak ureztatutako eremua kolonizatzeaz arduratu zen, besteak beste. Bere eskumenak gauzatzeko, funtsezko hiru legetan oinarritu zen: 1939ko abenduaren 26ko Legea, Ereku Handiak Kolonizatzeako Oinarriak buruzkoa, 1946ko apirilaren 27ko Legea, Tokiko intereseko kolonizazioei buruzkoa eta 1949ko apirilaren 21eko Legea, Ereku ureztagarrien jabetza kolonizatzeari eta banatzeari buruzkoa. Kolonizatzearen eta ureztalurrak sortzeko hasierako ideiatik, nekazaritza egiturak eraldatzearen kontzeptu osoago baterantz eboluzionatu zuen. 1962an Lursailak Biltzeko Legea aldarrikatzean hasi zen hori. Kolonizazio Institutu Nazionalak bi jarduera ildo bereizi jarraitu zituen. Alde batetik, zeharkako jarduera ildo bat, Tokiko Intereseko Kolonizazioa izenekoa, sorotetan hobekuntzak egiteko laguntza tekniko eta ekonomikoak ezartzean zetzana, dirulaguntzen eta laguntzen bidez. Bestetik, funtsezko ildoak; hau da, zuzeneko jarduera: lurraren gain egindako hainbat jarduketa, landa finken jabetza eskuratuz eta lursail horiek ureztalur bihurtuz, aitzinetik hautatutako kolonoen artean partzelatzeko eta banatzeko. Kolonizazio Institutu Nazionalaren eta Foru Diputazioaren artean ezarritako lankidetzak hitzarmenaren bidez —1954ko apirilaren 9ko Erabakiaren bidez onartua—, Diputazioa konprometitu zen laguntza ekonomiko batzuk ematera Nafarroan egiten ziren tokiko intereseko kolonizazioen obretarako. Behin Kolonizazio Institutua IRYDA integratuta, Foru Diputazioak beste hitzarmen bat sinatu zuen erakunde berriarekin. Haren bidez, beste inbertsio batzuetarako laguntzen emakida zabaldu zen eta beharrezko txostenak izapidetzeko eta idazteko agindu zen. Abenduaren 15eko 3161/1978 Errege Dekretuaren bidez, IRYDAren jarduketa bereziak adostu ziren uholdeek kaltetutako Nafarroako zenbait eremutan.

Abenduaren 18ko 2654/1985 Errege Dekretuaren bidez, Estatuko Administrazioaren nekazaritza eta abeltzaintza arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkion Nafarroako Foru Komunitateari. Eginkizun horien artean zeuden IRYDAk betetzen zituen nekazaritza eraberritzeari eta garatzeari buruzkoak. Errege Dekretu horretan zehazten zen Foru Komunitateari eskualdatzen zitzaizkiola Foru Komunitateak betetzen zituen eginkizunei zegozkion IRYDAren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak, baldin eta, zehazki, aribideko jarduketei zegozkien. Aldiz, Bardeako Kanalaren lehen zatia nagusi zuen interes nazionalako eremuari zegokionez, IRYDAk bere eginkizunak betetzen jarraituko zuen, harik eta obrak bukatu, obrak eta gainerako ondasunak hartzaileei entregatu eta zegozkien likidazio proiektuak egin eta onartu arte.

Funtsaren antolamendua:

047.01 ADMINISTRAZIOA

- 047.01.01 Kolonizazioaren aurrerapenari buruzko azterlanak eta memoriak
- 047.01.02 Kolonizazioari buruzko estatistikak
- 047.01.03 Korrespondentzia
- 047.01.04 Kide anitzeko organoetan izandako parte-hartzea

047.02 KOLONIZAZIOA

- 047.02.01 Kolonizazio planak
- 047.02.03 Partzelazioak
- 047.02.04 Obren eta hobekuntzen espedienteak
- 047.02.05 Loteen balorazioak eta kolonoei adjudikatutako loteak
- 047.02.06 Azienda izakinak eta kolonoei emandakoa
- 047.02.07 Erakunde publikoei zerbitzu publikoko lursailen, eraikuntzen, edo instalazioen lagapena
- 047.02.08 Laboreen intentsitateei buruzko txostenak eta proposamena
- 047.02.09 Merkataritza askerako lur loteetako labore indizeak bete izanaren adierazpenak
- 047.02.10 Esleitzeko dauden finkak ustiatzeko planen txostenak eta aurrekontuak

047.03 KONTABILITATEA

- 047.03.01 Kontabilitate arloko dokumentuak

Sartzeko baldintzak

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Lotutako dokumentuak:

Nafarroako Foru Diputazioaren eta Kolonizazio Institutu Nazionalaren (lehenik) eta IRYDAren (geroago) arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, erakunde horiek sortutako dokumentazio gehiena Nafarroako Errege Artxibo Nagusian dago (AGN; Foru Diputazioaren Funtsa, 05). Nekazaritza.